JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

6853

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 12koa, Lehendakaritzaren idazkari nagusiarena, Kanpo Harremanetarako eremuan pertsonak espezializatzeko 2007an esleitu ziren bekak luzatzeko dena.

Irailaren 30eko 221/2003 Dekretuan -Kanpo Harremanetan eta Kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko bekak arautzeko denean, hain zuzen- eta beka horien 2007ko uztailaren 16ko deialdi ebazpenean ezarrita dagoenarekin bat etorriz, Kanpo Harremanetarako eremuan pertsonak espezializatzeko bekak esleitu ziren, 2007ko azaroaren 26ko Ebazpenaren bidez. Beka horiek hamabi hilabeteko iraupena dute. 2007ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bidez beka bati uko egin zitzaiona eta ordezkoari esleitu, aurrekoari geratzen zitzaion denbora eta dirukopuruarekin.

221/2003 Dekretuaren 3. artikulua oinarri hartuta, beken onuradunek luzapena eskatu dute, horretako bidezko informea erantsiz. Eskaerak kontuan hartuta, irailaren 30eko 221/2003 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritako Aukeraketa Batzordeak esleitutako bekak beste hamabi hilabetetan luzatzeko proposamena aurkeztu du.

Horregatik guztiarengatik, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eranskinean agertzen diren pertsonei bekak luzatzea, Kanpo Harremanetarako eremuan, beste hamabi hilabetetan.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 12a.

Lehendakaritzaren idazkari nagusia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

6853

RESOLUCIÓN de 12 de noviembre de 2008, del Secretario General de la Presidencia, por la que se prorrogan las becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores, adjudicadas en el 2007.

De conformidad con lo establecido en el Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, por el que se regulan becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores y de las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, y en la Resolución de 16 de julio de 2007, de convocatoria de las mismas, por Resolución de 26 de noviembre de 2007, se adjudicaron las becas de especialización de personas en el ámbito de las Relaciones Exteriores. Por Resolución de 18 de diciembre de 2007 se hizo pública una renuncia a dichas becas, adjudicándose a la persona suplente, por el tiempo e importe que restaba a la persona renunciante.

En base al artículo 3 del Decreto 221/2003, las personas adjudicatarias de las becas, han solicitado la prórroga adjuntando los Informes procedentes. En vista de la solicitud, la Comisión de Selección designada por el artículo 7 del Decreto 221/2003, de 30 de septiembre, cuyos miembros se nombran por la Resolución de convocatoria, ha elevado la correspondiente propuesta de prórroga de las becas para otros doce meses.

Por todo lo cual,

RESUELVO:

Primero.– Prorrogar las becas de especialización en el ámbito de las Relaciones Exteriores, por otros doce meses, a las personas relacionadas en el anexo con indicación del destino de la formación.

Segundo.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, se podrá interponer recurso potestativo de reposición, ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, o bien recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de noviembre de 2008.

El Secretario General de la Presidencia,
JESÚS PEÑA MARTÍNEZ.

ERANSKINA/*ANEXO*

Izen-abizenak / *Nombre y apellidos*	Lekua/*Destino*
Lorena Beitia Valenzuela	Kanpo Harremanetarako zuzendaritza / *Dirección de Relaciones Exteriores*
Martín Urquijo Unzurrunzaga	Argentinako ordezkaritza / *Delegación de Argentina*
Irantzu Oleagoitia Ferarios	Txileko ordezkaritza / *Delegación de Chile*
Borja Romaña Partearroyo	Estatu Batuetako ordezkaritza / *Delegación de Estados Unidos*
Itxasne Ruiz Amutxastegi	Mexikoko ordezkaritza / *Delegación de México*
Ane Letamendia Suárez	Venezuelako ordezkaritza / *Delegación de Venezuela*